

ARDOGINTZAREN ETA OLIOGINTZAREN OYÓN-OIONGO XII. ARGAZKI-LEHIAKETA

DEIALDIAREN OINARRIAK

1.- DEIALDIAREN XEDEA

Lehiaketaren hamaikagarren edizioan parte hartzea sustatu nahi da; izan ere, haren xedea da herritarrean artean Oyón-Oionen ardo- eta olio-jarduerak duen balioa, beharra eta garrantzia bultzatzea, zabaltzea eta herritarrak horren inguruan kontzientziatzea eta sentsibilizatzea.

2. – PARTE-HARTZAILEAK

Edozeinek parte hartu ahalko du lehiaketan, argazkiak epe barruan entregatuz gero. Ez da adin-mugarik egongo, ezta herritartasun-mugarik ere. Muga bakarra izango da epaimahaikideekin harremanik ez izatea: ahaidetasun-harremana, harreman profesionala edo adiskidetasun-harremana.

3.- GAIA, TEKNIKA ETA FORMATUA.

Argazkien gaia Oyón-Oiongo ardogintza eta oliogintza izango da. **Baldintza izango da egindako argazkiak udalerriarekin identifikatu ahal izatea.** Horretarako, oinarritzat har daitezke nekazaritzako jarduera eta/edo prozesuak, laborantza-tresnak edo -teknikak, baserriko kultura, nekazaritza-paisaia tradizionalak eta ardogintzarekin eta oliogintzarekin zerikusia duten beste jarduera osagarri batzuk.

Argazkiak argazki-paperean aurkeztuko dira, koloretan. Gutxienez **30 x 40 cm**-ko tamaina izango dute, eta, gehienez, 40 x 50 cm-koa. Argazkiaren tamaina bereko euskarri zurrun batean entregatuko dira lanak (kartoi-luma edo antzekoa).

Aurkeztutako argazkiak originalak eta argitaragabeak izan behar dira, gure udalerrian egindakoak. Ez da onartuko aldi berean beste lehiaketa batera aurkeztutako lanik, ezta lehenago saritu den argazkirik edo hirugarren baten eskubideak dituen argazkirik.

Honako hau baloratuko da, bereziki: moldaketarik ez duten argazkiak (elementuak jarri edo kentzeko), hainbat argazki nahasten ez dituztenak eta fotomuntaketen emaitza ez direnak.

4.- AURKEZPENA ETA EPEAK

Parte-hartzaileek A eta B gutun-azaletan entregatuko dituzte proposamenak. Bi gutun-azalen kanpoaldean argazkiaren leloa edo izenburua agertuko dira.

Barruan aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1) **A gutun-azala. ARGAZKIA** eta horren atzealdean argazkiaren leloa edo izenburua.

2) **B gutun-azala.** Honako hauek aurkeztuko dira:

- Argazki(ar)en euskarri digitala edo negatiboa (inprimatzearen bereizmena).
- Argazkiaren deskribapen laburra, erabilitako kamera eta argazkia hartu den lekua aipatzen dituen dokumentua.
- Izen-abizenak, NANaren fotokopia, helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa, eta argazkiaren leloa edo izenburua dituen dokumentua.
- * Argazki(ar)en egiletza ziurtatzen duen zinpeko adierazpena.
- Parte-hartzailea adingabea bada, legezko ordezkariaren baimena eta haren NANaren fotokopia.

Lanaren bilgarria, garraioa eta aseguruak kontratatuz gero, gastuak egileak edo entregatzean nahiz jasotzean hura ordezkatzeko duen pertsonak ordainduko ditu.

Behin materiala lehiaketara entregatuta, parte-hartzaileak ezingo du hura baztertu, ezta lehiaketan parte hartzeari uko egin ere epaia egiten den arte.

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez ere, 5 argazki aurkeztu ahalko ditu.

Argazkiak posta arrunt bidez aurkeztu beharko dira honako helbide honetan:

Oyón-Oiongo Udala, ARGAZKI-LEHIAKETA, Plaza Nagusia 5 (PK.: 01320), Oyón-Oion (Araba).
Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Argazkiak entregatzeko epea 2023ko uztailearen 7an bukatuko da, 14:00etan.

Era berean postaz bidalitako dokumentazioa udal-bulegoetan egon beharko da **2023ko uztailearen 7an**. Parte-hartzaileen arduraren izango da lanak oinarrietan zehaztutako epean entregatzea. Ez da onartuko jatorrizko dokumentazioa entregatzeko data eta ordutik kanpo jasotzen den dokumentazioa.

5.- EPAIMAHAIA ETA ERAKUSKETA

Udalak aukeratuko ditu epaimahaikideak, eta ageriko inpartzialtasuna izango dute.

Aurkeztutako lan batzuk erakusketa bat egiteko hautatuko dira.

Lanak objektiboki haztatze aldera, epaimahaiak honako irizpide hauek baloratuko ditu, besteak beste: teknika menperatzea, sormena eta originaltasuna, lanaren izaera berritzailea, eta argazki(ar)en bidez transmititu nahi den mezua.

Erabakiak apelaezinak izango dira.

Irabazleen zerrenda, hautatutako argazkiak eta erakusketaren lekua eta eguna Interneteko esteka honetan argitaratuko dira: www.ayuntamientodeoyon.com. Nolanahi ere, hautatuak izan diren pertsonen zuzenean jakinaraziko zaie posta elektronikoko edo telefono bidez.

Justifikatutako arrazoiak direla eta, epaimahaiak aukera izango du sari guztiak edo baten bat eman gabe uzteko.

Epaimahaiak bertan behera utz dezake lehiaketa gutun-azalak ireki gabe, baldin eta parte-hartzaileen kopurua sei baino txikiagoa bada.

Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da. **Sari-banaketa 2023ko uztailearen 16an izango da.**

6.- SARIAK

3 sari daude.

a) Lehenengo saria: 400 euro eskudirutan.

b) Bigarren saria: 200 euro eskudirutan.

c) Hirugarren saria: 100 euro eskudirutan.

Sariak indarrean dauden arau fiskalen menpe egongo dira.

7.- LANAK ITZULTZEA

Erakusketarako hautatu ez diren lanak 2023ko irailaren 1etik 15era itzuliko dira, egileek hala eskatuz gero. Epe hori bukatzean, Udala ez da arduratuko argazkiak kontserbatzeaz, eta, hiru hilabete igaro ostean, Udalaren ondare artistikoaren parte bihurtuko dira, lagata, eta irabazi-asmorik gabeko dibulgazio-helburuetarako erabili ahal izango dira.

Aurkeztutako lanak bidaltzeak eta baztertzeak izan ditzakeen kostuak parte-hartzailearen esku geratuko dira.

Obrak ahalik eta kontu handienarekin tratatuko dira. Hala ere, Udalak ez du bere gain hartuko obrak manipulatzeko, biltegiatzean edo erakustean gerta daitezkeen kalteen gaineko erantzukizuna, ezta obrak bidali, gorde edo itzultzean horiek lapurtu edo galtzearen erantzukizuna ere.

8.- AZKEN OINARRIA

Aurkeztutako lanak, bai eta euskarri digitalak ere, Udalaren ondare artistikoaren parte izatera igaroko dira. Hartara, Udalarenak izango dira lanen gaineko eskubide guztiak, baita edozein bide erabilita horiek erreproduzitu eta zabaltzekoa ere, betiere irabazi-asmorik gabe, udalerrri honetako **ARDOGINTZA eta OLIOGINTZA** sustatzeko, garatzeko eta bultzatzeko xedearekin.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaiaren epai apelaezina erabat ezagutzea, ulertzea eta onartzea dakar. Parte-hartzaileak lehiaketaren baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzen du. Halaber, parte-hartzaileak onartzen du lehiaketatik berehala kanporatua izango dela, baldin eta oinarrietan jasotako baldintzaren bat guztiz betetzen ez bada edo parte-hartzailearen adierazpenen bat neurri batean edo guztiz faltsua, okerra edo gezurra bada; hori guztia lehiaketan zehar, epaimahaiak saria eman eta gero edo sariak ordaindu eta gero. Kanporatua argazki irabazle baten egilea bada, parte-hartzaileak konpromisoa hartzen du sarietatik kobratutako zenbatekoa berehala itzultzeko antolakuntzari.

Oinarrietan jasota ez dauden alderdien gainean, erabakiak hartu edo egokitzen jotzen dituzten aldaketak egin ahal izango dituzte antolatzaileek.